

## 3. FASEA: PLANIFIKAZIOA

### AURKEZPENA/JUSTIFIKAZIOA

Sentsibilizazio eta diagnosi-faseak egin ondoren, parte hartu duen taldeak pertzepzio garbiagoa, zehatzagoa eta adostuagoa edukiko du gai hauen inguruan:

- Ikastetxean landu nahi den elkarbizitza
- Elkarbizitzaren kalitatean eragina duten aldagaiak
- Eguneroko errealitatea: non gauden eta zer nahi dugun, egonezinen eta gatazken arrazoiak

Informazio hau planifikatzeko eta antolatzeko ordua da. Honela beharrianak eta helburu zehatzak, garbiak eta lehentasuna dutenak definituko ditugu, hauek taldeari elkarbizitza positiboa eraikitzeko xedearen inguruan bat egiten lagunduko diotelarik.

PLANIFIKAZIO fase honek 4 jarduera proposatzen ditu:

- KAUSAK HELBURU BILAKATZEN
- UEPren HELBURUETAN LEHENTASUNAK FINKATZEN ETA AUKERA EGITEN
- BEHARRAK DETEKTATZEN-PRESTAKUNTZA EKINTZA-PLANA
- URTEKO HELBURUAK PLANIFIKATZEN

Jarduerek sekuentzia hauxe daukate:

6. JARDUERA: **KAUSAK HELBURU BILAKATZEN**: Aurreko informazioa berreskuratu (BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA ETA EGONEZINAK ETA GATAZKAK) eta elkarbizitzaren hobekuntzari begira lortu beharreko helburu bezala formulatu.

7. JARDUERA: **UEPren HELBURUETAN LEHENTASUNAK FINKATZEN ETA AUKERA EGITEN**: UEPa egiteko epe laburrera begira helbururik inportanteenak lehenetsi.

8. JARDUERA: **URTEKO HELBURUAK PLANIFIKATZEN**: helburuak lortzeko ekintzak, arduradunak, denboralizazioa ... zehaztu.

9. JARDUERA: **BEHARRAK DETEKTATZEN - PRESTAKUNTZA - EKINTZA PLANA**: aukeratutako helburuak kontuan hartuz, prestakuntza-beharrak edota martxan jartzeko aurrakusten diren ekintzak zehaztu.

Aipatutako jarduez gain, fase honen amaieran **3. FASEAREN AZKEN EBALUAZIOA** aurkituko duzu.

### HELBURUAK

1. Jasotako eta landutako informazioa helburu bihurtu.
2. Helburuak taldearentzat daukaten lehentasunaren arabera lehenetsi.
3. Martxan jartzeko taldeak dituen beharrak identifikatu.
4. UEPari begira taldeak adostu dituen helburuak planifikatu.

## EDUKIAK

1. HELBURUEN DEFINIZIOA
2. PRESTAKUNTZA BEHARRIZANEN ZEHAZTAPENA ETA HELBURUEN ONDORIOZ SORTUKO DIREN EKINTZAK
3. EPE LABURREAN EGITEKOAK DIREN HELBURUEN PLANIFIKAZIOA

## ORIENTAZIO METODOLOGIKO OROKORRAK

- Fase honetan interesgarria da dinamizatzaileak 3. BALIABIDEA: EREMUAK, ESTRATEGIAK, EKINTZAK ondo ezagutzea, honela fasearen azkeneko jardueran aukeratutako helburu zehatzak testuinguru globalean kokatu ahal izango dituelako.
- Fase honetan aurkezturiko erremintak zentroko estamentu guztiekin lantzekoak dira, aurrekoetan eginikoaren arabera eta kontuan hartuz lehenetsiriko helburuen bilketa zein estamentu bakoitzak dituen prestakuntza beharrak egokitu beharko direlarik.
- Sektore bakoitzak bere aldetik egingo du bateratze-lana, bukaeran beste estamentuekin ekarpenak konpartituz.
- Urteko helburuen behin betiko planifikazioa egiteko unean (8. jarduera) informazioa estamentu guztiengandik jasoko da, bakoitzari proposamenak egitea eskatuz eta bateratze-lana ikastetxeak aukeraturiko talde funtzional batek burutuko du (bildutako informazioa ordenatu, osatu, behar diren zehaztasunak, moldaketak... jarri).
- Prozedura berdina jarraituko da prestakuntza-ekintza plana egitean (9. jarduera)
- Ikuspegi osoagoa lortu nahi izanez gero, interesgarria da emakumeen ekarpenak alde batetik biltzea eta gizonenak bestetik. Informazio hau, batzuen eta besteen sinesmenak eta pertzepzioak berdinak zein ezberdinak direlako, oso baliagarri suertatuko da planifikaziorako eta baita aukera- zein tratu-berdintasuna bermatzen duten ikasketa-egoerak programatzeko ere. Horrez gain, justizia eta ekitatea oinarri duten harreman demokratikoak eraikitzen lagundu ere bai. Horrela egitea erabakiz gero, kontuan eduki taldeak eratzekoan, emaitzak biltzerakoan, eta abar kolektibo bakoitza bere aldetik ibiliko baita.
- Jarduera bakoitza bukatzerakoan ebaluaketa erraz bat proposatzen da. Dinamizatzailearen ardura izango da emaitzak dagokion AKTAN biltzea eta horrela hurrengo saioan taldeari aurkezteko lana erraztu, hau proiektuaren memoriarako baliagarri izango delarik ere bai.
- SAIOA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK atalean saioa aurrera eramane baino lehen ezagutzea gomendagarri diren informazioak agertuko dira. Horrez gain, norbaitek interesa erakutsiz gero errefortzu gisa ere erabili daitezke.
- SAKONTZEKO MATERIALAK atalean landutako gaien inguruan sakontzeko materialak agertuko dira.

3. FASEAREN GARAPENA

| 6 JARDUE RA   | Denboralizia zioa                           | Jarraibideak   | Baliabideak | Erremintak  |
|---|---|--|-------------|---|
| <b>GAKOAK:</b>  |   |  |             |   |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Dinamizatzaileak fasea hasi baino lehen: elkarbizitzari buruz adostutako definizioa berreskuratu baita taldearen egonezinak eta haien kausak biltzen dituen azken dokumentua ere eta taldeari errebaso-aurrekepena egiteko aztertu.</li> <li>✓ FOTOKOPIAK: DIN A3, 1 pertsona bakoitzeko: <b>BIZIKIDETZAREN DEFINIZIO ADOSTUA</b> (1. FASEA) eta <b>6. erreminta "Kausak helburu bilakatzen"</b>, 2. faseko emaitzak bilduz hiru zutabeetan idatzirik. Talde handian lorturikoa zerrenda bilduko duen pertsonarentzako <b>6b erreminta "TALDE OSOAREN LABURPENA. Kausak helburu bilakatzen"</b> kopia bat.</li> <li>✓ GARDENKIETAN: talde bakoitzarentzat DIN A3 kopia bat: <b>6a erreminta "Kausak helburu bilakatzen"</b></li> <li>✓ MATERIALAK: gardenki-errotulkiak, proiektorea eta bi koloreko post-itak.</li> </ul> |   |  |             |   |
| <b>KAUSAK HELBURU BILAKATZEN</b>  | <b>Guztira:</b><br><b>70</b><br><br>10 min. | Dinamizatzaileak:<br>→ 2. fasearen ebaluazioa komentatu<br>→ Fasearen aurrekepena.   |             |   |
|   | <b>BAKARKA KO LANA:</b><br><br>20 min       | Entregatu beharreko materiala:<br>→ BIZIKIDETZAREN inguruan adostutako definizioa (1. FASEA)<br>→ 6. erreminta hasierako hiru zutabeak beterik<br><br>Elkarbizitzaren definizioa berrirakurri eta marko ideologiko hori kontuan hartuz, egonezinak eta kausak helburu bihurtu.   |             | <b>6. Erreminta</b><br><br>"Kausak helburu bilakatzen"                            |
|   | <b>TALDE TXIKIKO LANA:</b><br><br>20 min.   | 5 pertsonako taldeak egin.<br>Entregatu beharreko materiala:<br>→ 6a erreminta (GARDENKIA) bana talde bakoitzeko: <u>"Kausak helburu bilakatzen"</u>   |             | <b>6a Erreminta</b><br><br>"Kausak helburu bilakatzen"                            |
|   | <b>TALDE HANDIKO LANA</b><br>15 min.        | Bateratze-lana.<br>Dinamizatzaileak edo beste norbaitek birformulaturiko helburuen zerrenda jaso (6b erreminta)  |             | <b>6b Erreminta</b><br><br>"TALDE OSOA. LABURPENA"<br>"Kausak helburu bilakatzen" |
|   | <b>Bakarkako lana:</b><br><br>5 min         | <b>JARDUERAREN EBALUAZIOA</b><br><br>Post-it batean partaide bakoitzak osatu item hauek:<br>→ Gustatu zait.....<br>→ Taldearen partaidetza izan da.....<br><br><i><b>Oharra: gizonen eta emakumeen ebaluazioak KOLORE EZBERDINEKIN, banaka aztertu ahal izateko.</b></i><br><i>(Dinamizatzaileak ebaluazioa jasoko du, jarduera bakoitzaren dagokion AKTA EREDUAN)</i> |             | JARDUERAREN AKTA  |

## Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) eratzeko gida

| 7. JARDU ERA  | Denboraliz azioa                                 | Jarraibideak   | Baliabi deak | Erremintak   |
|---|--|--|--------------|--|
| <b>GAKOAK:</b><br>→ Hasi baino lehenago, dinamizatzaileak 6. jardueran sortu diren helburuak 7. erremintan ("UEP helburuetan lehentasunak finkatzen eta aukera egiten") integratuko ditu.<br>→ FOTOKOPIAK : 7. Erreminta partaide bakoitzarentzat ("UEP helburuetan lehentasunak finkatzen eta aukera egiten")<br>→ GARDENKIEN FOTOKOPIAK: talde bakoitzarentzako 7. Erremintaren ("TALDEAREN DATUAK. UEP helburuetan lehentasunak finkatzen eta aukera egiten") kopia bat.<br>→ MATERIALAK: Errotuladoreak, gardenkiak, gardenkien proiektorea eta bi koloreko post-itak |  |  |              |  |
| UEPren HELBURUETAN LEHENTASUNAK FINKATZEN ETA AUKERA EGITEN   | <b>Guztira:</b><br><b>50 min.</b><br><br>15 min. | Dinamizatzaileak:<br>→ 6. jardueraren EBALUAZIO AKTAn jasotakoa taldeari aurkeztu.<br>→ 7. erreminta (helburuen zerrenda barne) entregatu partaide bakoitzari eta aurkezpena egin.   |              |  |
|   | <b>Banakako LANA:</b><br><br>10 min.             | Pertsona bakoitzak helburuak lehentasunaren finkatzen ditu "TALDE NOMINALA TEKNIKA" erabiliz.<br><br><i>Helburuen lehentasuna finkatzeko orduan 3 aspektu hauek kontuan hartu.</i><br>→ <i>BIDEGARRITASUNA: Egin daiteke? Beharko ditugun baliabideak, denbora, trebetasunak eta ezagupenak izango ditugu?</i><br>→ <i>ERABILGARRITASUNA: zertarako erabili ahal da? Zer nolako interesari erantzuten dio? zein da onura?</i><br>→ <i>EGOKIERA: Momentu aproposa da? Beranduegi, goizegi, presazkoa al da?</i><br><b>Prozedura:</b> helburu ezberdinak puntuatu, puntuaziorik altuena helburu inportanteenari emanez (adibidez: 7 helburu badira, inportanteenari 7 puntu eman, bigarrenari 6 bat eta horrela azken helburuari puntu bat emanez) |              | <b>7. Erreminta</b><br>"UEP helburuetan lehentasunak finkatzen eta aukera egiten"                      |
|   | <b>Talde osoko LANA:</b><br><br>20 min.          | Emaitzak jaso eta gardenki batera pasa. Bertan puntuazioak batu. Puntuaziorik altuena lortu duten helburuak taldeak lehenetsi dituenak dira.   |              | <b>7.A Erreminta</b><br>"TALDEAREN DATUAK<br>UEP helburuetan lehentasunak finkatzen eta aukera egiten" |
|   | <b>Banakako LANA:</b><br><br>5 min               | <b>EBALUAZIO JARDUERA:</b><br><br>Post-it batean partaide bakoitzak osatu item hauek:<br>→ Aspektu interesgarriak<br>→ Hobetzeko aspektuak<br><br><b>Oharra: gizonen eta emakumeen ebaluazioak KOLORE EZBERDINEKIN, banaka aztertu ahal izateko.</b><br>(Dinamizatzaileak ebaluazioa jasoko du, jarduera bakoitzaren dagokion AKTA EREDUAn)  |              | <b>JARDUERAREN AKTA</b>  |

## Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) eratzeko gida

| 8. JARDU ERA  | Denboralizazioa                                 | Jarraibideak   | Baliabideak  | Erremintak   |
|---|---|--|--|--|
| <b>GAKOAK:</b><br>→ Taldeari lehenetsiriko helburuak marko orokorrean kokatzen laguntzeko interesgarria da dinamizatzaileak eskura izatea 6a erremintaren emaitzak bertan loturak ikusgai baitaude.<br>→ Interesgarria da dinamizatzaileak taldeari 7. jardueran lehenetsitako helburuak marko orokorrean kokatzeko dagokion eremuan edo arloan berriro kokatzea (ikus 4. BALIABIDEA: EREMUAK, ESTRATEGIAK ETA EKINTZAK), honela aspektu zehatzak.<br>→ FOTOKOPIAK: 1 (gardenkian) talde bakoitzarentzat <u>8. erremintarena "Urteko helburuak planifikatzen"</u> , 4. baliabidearena EREMUAK, ESTRATEGIAK ETA EKINTZA-ILDOAK eta 1 paperean <u>8a erremintarena: "Urteko helburuak planifikatzen"</u> (taldearena)<br>→ MATERIALAK: gardenkietarako errotuladoreak, proiektorea eta bi koloreko post-itak. |   |  |  |  |
| <b>URTEKO HELBURUAK PLANIFIKATZEN</b>   | <b>Guztira:</b><br><b>50 min.</b><br><br>5 min. | Dinamizatzaileak:<br>✓ Taldeari 7. jardueraren <u>Ebaluazio akta-n</u> bildutakoa aurkeztu.<br>✓ 7. jardueran lehenetsi diren helburuak gogoratu eta bakoitza zein eremutan kokatzen den aipatu.   | <b>4. BALIABIDE A:</b><br>EREMUAK, ESTRATEGIAK, EKINTZAK | .....  |
|   | <b>TALDE TXIKIKO LANA:</b><br>25 min.           | Talde bakoitzari gardenkian emango zaio <u>8. erreminta</u> eta <u>4. baliabidearen fotokopia</u> . Talde bakoitzak lan egingo du lehenetsiko helburu batekin.   | <b>4. BALIABIDE A</b><br>EREMUAK, ESTRATEGIAK, EKINTZAK  | <b>8. erreminta</b><br><u>"Urteko helburuak planifikatzen"</u> |
|   | <b>TALDE HANDIKO LANA:</b><br><br>15 min.       | Bateratze lana talde osoan. Lagun batek "TALDEAREN DATOAK: <u>Urteko helburuak planifikatzen</u> " izeneko <u>8a erremintan</u> aipatutakoa bildu.   | .....  | <b>8a erreminta</b><br><u>"Urteko helburuak planifikatzen"</u> |
|   | <b>Banakako LANA:</b><br><br>5 min              | <p style="text-align: center;"><b>JARDUERAREN EBALUAZIOA:</b></p> PARTAIDE BAKOITZARI post-it bat eman eta jarduera baloratu item hauen arabera:<br><br>→ Jarduera definitu egiten duen ideia-gakoa<br>→ JARDUERA ..... lortzeko baliagarria izan dela iruditu zait.<br><br><i><b>Oharra: gizonen eta emakumeen ebaluazioak bi multzotan bildu, banaka aztertu ahal izateko.</b></i><br><i>(Dinamizatzaileak ebaluazioa jasoko du, jarduera bakoitzaren dagokion AKTA EREDUAN)</i> | .....  | JARDUERAREN AKTA   |

Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) eratzeko gida

| 9. JARDU ERA  | Denboralizazioa   | Jarraibideak  | Baliabideak   | Erremintak   |
|---|---|---|---|--|
| <b>GAKOAK:</b>  |   |   |   |  |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>→ Hasi aurretik dinamizatzailerak 7. jardueran "UEP helburuetan lehenetsiak finkatzen eta aukera egiten" lehenetsi diren helburuak gogoratu.</li> <li>→ Orain ere, taldeari lehenetsirikoa helburuak marko orokorrean kokatzen laguntzeko interesgarria da dinamizatzailerak eskura izatea 6a erremintaren emaitzak bertan loturak ikusgai baitaude.</li> <li>→ Dinamizatzailerak taldeari lehenetsi diren helburuak marko orokorrean kokatzen lagundu ahal izateko interesgarria da zein eremutan kokatzen diren aztertuta izatea (horretarako ikus <b>4. BALIABIDEA: EREMUAK, ESTRATEGIAK ETA EKINTZAK baliabidea</b>).</li> <li>→ FOTOKOPIAK: 1 (gardenkian) talde bakoitzarentzat <u>9. erremintarena "Beharrak detektatzen - prestakuntza - ekintza plana"</u> eta paperean 9a erremintarena <u>"Beharrak detektatzen -prestakuntza - ekintza plana"</u> (taldearena).</li> <li>→ MATERIALAK: gardenkietan idazteko errotuladoreak, proiektorea eta bi koloreko post-itak.</li> </ul> |   |   |   |  |
| <b>BEHARRAK DETEKTATZEN - PRESTAKUNTZA-EKINTZA PLANA</b>  | <b>Guztira:</b><br><b>50 min.</b>   | Dinamizatzailerak:<br>✓ Taldeari 8. jardueraren <u>Ebaluazio akta-n</u> bildutakoa aurkeztu.  |   |  |
|   | 5 min.  | .....   | .....   | .....  |
|   | <b>TALDE TXIKIKO LANA:</b>  | Talde bakoitzari (gardenkian) <u>8. erreminta " Beharrak detektatzen - prestakuntza -ekintza plana"</u> banatu. Bertan lehenetsia izan duten helburuak lortzeko aurrakusten diren beharrak zehaztu. |   | <b>9 erreminta</b><br>" Beharrak detektatzen - prestakuntza - ekintza plana" |
|   | 25 min.   | .....   | .....   | .....  |
| <b>TALDE HANDIKO LANA :</b>   | Bateratze-lana talde handian. Aipaturiko beharrak norbaitek jasoko ditu <u>9a erremintan "Beharrak detektatzen - prestakuntza -ekintza plana"</u>   |   | <b>9a erreminta:</b><br>"Beharrak detektatzen - prestakuntza - ekintza plana" |  |
| 15 min.   | .....   | .....   | .....   |  |
| <b>Banakako LANA:</b>   | <b><u>EBALUAZIO JARDUERA:</u></b><br>PARTAIDE BAKOITZARI post-it bat eman eta jarduera baloratu item hauei erantzunez:<br>→ Zein musikarekin lotuko zenuke jarduera?<br>→ Ekarpinak eta iradokizunak<br><br><i>Oharra: gizonen eta emakumeen ebaluazioak KOLORE EZBERDINEKIN, banaka aztertu ahal izateko.</i><br><i>(Dinamizatzailerak ebaluazioa jasoko du, jarduera bakoitzaren dagokion AKTA EREDUAN)</i> |   | JARDUERAREN AKTA  |  |
| 5 min   |   |   |   |  |

| 3. FASEA<br>AZKEN<br>EBALUAZIOA  | Denboralizazioa  | Jarraibideak   | Baliabideak | Erremintak   |
|--|--|--|-------------|--|
| <b>GAKOAK:</b><br>→ Garrantzia dauka parte hartzaileek fasea amaitu eta berehala ebaluazioa egiteak, honela sentazioak eta pertzepzioak ahalik eta arinen jaso ahal izateko.<br>→ FOTOKOPIAK: "3. FASEAREN AZKEN ebaluazioa" galdetegiaren fotokopia bana partaide bakoitzari. |  |  |             |  |
| <b>3. FASEAREN AZKEN-<br/>EBALUAZIOA: PLANIFIKAZIOA</b>  | <b>BANAKAKO<br/>LANA</b><br>Guztira 15 min.<br><br>Dinamizatzailerak | Partaide bakoitzari<br><b>"3 FASEAREN ebaluazioa"</b><br>galdetegia banandu<br><br>Hurrengo saioan taldeari bildutako datuak eta jardueren akten laburpena aurkeztu. |             | <b><u>GALDETEGIA</u></b><br>"3. FASEAREN AZKEN EBALUAZIOA" |

#### SAIOA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK

- OINARRIZKO MATERIALA 1: PLANIFIKAZIO PARTE HARTZAILEAREN PROZESUA

#### SAKONTZEKO MATERIALAK

- SAKONTZEKO MATERIALA 1: PLANIFIKAZIOA-ZUZENDARITZA PROIEKTUAREN OSATZEA-ADIERAZLEAK...

#### BIBLIOGRAFIA, WEB LOTURAK ETA BESTELAKO BALIABI DEAK

##### LIBURUAK:

- J. RULL, N. ZAITEGI, "Ikastetxearen autoebaluazioa. Ebaluazio tailerra: GE-Rs kudeaketa eredu. Eusko Jaurlaritza, 2003, Gasteiz. (Elkarteko ikastetxe publiko guztietan zein Berritzegunetan eskura dago).
- T. BOOTH, M. AINSCOW, "Hezkuntza inklusiboa ebaluatzeke eta hobetzeko gida. Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz" Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco. (Ikastetxe publiko eta Berritzegune guztietan dago)